

## PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Gure proiektuaren izena Llagardama da. Proiektuaren ideia hurrengoa da, hainbat tamainatako autoetara molda daitezkeen eguzki-plakak sortzea, bakarrik auto elektrikoetarako. Produktu honen bidez, CO2 maila murriztu nahi dugu, planeta eta ingurumena hobetzen saiatu kutsaduraren aurka, baita baliabide ekonomiko gutxi dituzten familiei lagundu ere.

Produktu hau salduko diegu kontzesionarioei, beraz, auto elektrikoa duten pertsonak ez dute beste auto bat erosteko beharrik, autoaren markaren kontzesionarioan aplikatu ahal izango baitiete, hau da, gure plakak instalatzeko pertsona espezializatuak egongo dira. Bestalde, gure plakak jarrita dituzten autoak egongo dira salgai.

Plaken estetikari erreparatuz, kotxeen kanpoko sabaian kokatuko ditugu eta autoen kolorearen arabera plakak disimulatuko dira, hau da, kotxeen kolorea plakak izkutatuko dute. Bestalde, plakak kableak izango dituzte motorrarekin konektatzeko, hortik, energia berriztagarria kotxeari bidaliko zaio eta kotxea funtzionatuko du. Halaber, euria egiten duenean plakako beheko aldean erreserba bat egongo da energia gordetzeko eta eguraldi txarra izan arren kotxea funtzionatu da.

